

## Bestelako Xedapenak

### INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

2867

EBAZPENA, 2011ko martxoaren 8koa, Energia eta Meategien zuzendariarena, goi-tentsioko airetiko linea elektrikoak zuhaitzetatik igarotzeko berariazko preskripzioak ezartzen dituena.

Energia eta Meategien zuzendariaren 2007ko urtarrilaren 29ko Ebazpenaren bidez, zehaztasun handiagoa eman nahi zitzaion Goi-tentsioko airetiko linea elektrikoaren araudiaren 35. artikuluan ezarritako obligazioari. Araudi hori azaroaren 28ko 3151/1968 Dekretuak onartu zuen, linearen bi aldeetan zuhaitzak mozteko puntu bat egon behar zela esaten zuena, hain zuzen ere adarrek edo zuhaitz-enborrek linea elektrikoak eroaleak ukitzearen ondorioz gertatzen diren zerbitzu-etenak eta suteak saihesteko.

Goi-tentsioko airetiko linea elektrikoaren erregulamendu teknikoa eta bere jarraibide tekniko osagarriak (ITC-LAT 01etik 09ra) onartzen dituen otsailaren 15eko 223/2008 EDk (2008-03-19ko BOE) berariaz indargabetzen du araudi hori.

Araudian egindako aldaketengatik, eta aurreko ebazpena aplikatzearen ondorioz sortutako zenbait gairengatik, komeni da ezarritako preskripzioak berriro arautzeari ekitea, preskripzio horiek doitu eta aplikatu beharreko araudi berrira eta esperientziak agerian utzi duenera egokitzuz, hornidura eteteak dakartzan arriskuen eta suteen murrizketa eta ingurumenari egiten zaion erasoaren gutxitzea bateragarri egiteko, zuhaitz-mozketa horiek ondorio horiek dituzte eta.

Aipatutako lege-manuak eta, oro har, gai honetan erabilgarri diren gainerako xedapen guztiak ikusita,

XEDATU DUT:

**Bat.**– Lehen mailako goi-tentsioko airetiko lineak (220 kV baino txikiagoak eta 66 kV baino handiagoak diren tentsioak) gehienezko garapen begetatiboan baldintza txarretan linea elektrikoetako eroaleetatik metrotik beherako distantzian gera daitezkeen baso edo zuhaitzetatik igarotzen direnean, zuhaitzak mozteko alde bat ezarri eta dagokion kalte-ordaina ordaindu beharko da. Alde hori linea babesteko eremuan sartuko da.

## Otras Disposiciones

### DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

2867

RESOLUCIÓN de 8 de marzo de 2011, del Director de Energía y Minas, por la que se establecen las prescripciones específicas para el paso de líneas eléctricas aéreas de alta tensión por zonas de arbolado.

La Resolución de 29 de enero de 2007, del Director de Energía y Minas, se dictó con la finalidad de dar una mayor precisión a la obligación establecida en el artículo 35 del Reglamento de Líneas Eléctricas Aéreas de Alta Tensión, aprobado por Decreto 3151/1968, de 28 de noviembre, que establecía la necesidad de que existiese una zona de corte de arbolado a ambos lados de la línea, con el fin de evitar las interrupciones del servicio y los posibles incendios producidos por el contacto de ramas o troncos de árboles con los conductores de la línea eléctrica.

Dicho Reglamento ha sido derogado expresamente por el RD 223/2008, de 15 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento sobre condiciones técnicas y garantías de seguridad de líneas eléctricas de alta tensión y sus instrucciones técnicas complementarias, ITC-LAT 01 a 09 (BOE del 19-03-2008).

Los cambios normativos antes citados, así como diversas cuestiones surgidas como consecuencia de la aplicación de la Resolución anterior, aconsejan acometer una nueva regulación de las prescripciones establecidas, modulándolas y adaptándolas a lo que dicta la nueva normativa aplicable y a lo que la experiencia acumulada ha puesto de manifiesto, a fin de compatibilizar la reducción de los riesgos de interrupción del suministro y de incendio con la minimización de la agresión al medio ambiente que dichas operaciones de tala suponen.

Vistas las disposiciones legales citadas y otras de general y concordante aplicación,

DISPONGO:

**Uno.**– En el supuesto de paso de líneas aéreas de alta tensión de primera categoría (tensiones inferiores a 220 kV y superiores a 66 kV) por aquellos bosques y masas de arbolado que en su máximo desarrollo vegetativo pudieran quedar a menos de 3 metros de los conductores de las líneas en las condiciones más desfavorables deberá establecerse una zona de corte de arbolado, mediante la correspondiente indemnización y que pasará a formar parte de la zona de protección de la línea.

**Bi.**– Bigarren eta hirugarren kategoriako goi-tentsioko airetiko lineak (66 kV-koak edo hortik beherakoak) gehienezko garapen begetatiboan baldintza txarretan 2 metrotik beherako distantzia gera daitezkeen baso edo zuhaitzetatik igarotzen direnean, zuhaitzak mozteko alde bat ezarri eta dagokion kalte-ordaina ordaindu beharko da. Alde hori linea babes-teko eremuan sartuko da.

**Hiru.**– Zuhaitzak mozteko aurreko puntuetan adierazitako aldea honela zehaztuko da: kanpoko eroalek lurzorua gainean duten proiektioetik zuhaitzen oinarriara gutxienez 8 metroko distantzia egongo da, bigarren eta hirugarren mailako lineetarako, eta 9 metrokoa, lehenengo mailakoetarako, bi aldeetatik. Eroaleak eta beren kate isolatzaileak baldintzarik txarretan hartuko dira kontuan (15 °C-ko tenperatura eta 120 km/h haize abiadura).

**Laugarrena.**– Ingurumen aldetik sentikorrek diren aldeetan dauden zuhaitz-aldeen kasuan, ebazpen honen lehenengo eta bigarren puntuak errespetatzen badira, zuhaitzak mozteko aldea murriztu ahal izango da kasuan-kasuan horretarako eskumena duen Administrazioak ebazten duen modura.

#### XEDAPEN IRAGANKORRAK

Ebazpen honetan ezarritako preskripzioak egon dauden instalazio guztien aldizkako arauzko ikuskapenetan exijituko dira, eta ikuskapena egin ondoren, hiru urteko epea ezartzen da preskripzioak betetzeko.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da Energia eta Meategien zuzendariaren 2007ko urtarrilaren 29ko Ebazpena, goi-tentsioko airetiko linea elektrikoak zuhaitzetatik igarotzeko berariazko preskripzioak ezartzen dituenak.

#### AZKEN XEDAPENA

Ebazpen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko martxoaren 8a.

Energia eta Meategien zuzendaria,  
OSKAR ZABALA RABADÁN.

**Dos.**– En el supuesto de paso de líneas aéreas de alta tensión de segunda y tercera categoría (tensiones iguales o inferiores a 66 kV) por aquellos bosques y masas de arbolado que en su máximo desarrollo vegetativo pudieran quedar a menos de 2 metros de los conductores de las líneas en las condiciones más desfavorables deberá establecerse una zona de corte de arbolado, mediante la correspondiente indemnización y que pasará a formar parte de la zona de protección de la línea.

**Tres.**– La zona de corte de arbolado indicada en los puntos anteriores estará conformada por la proyección sobre el suelo de los conductores extremos, considerando éstos y sus cadenas de aisladores en las condiciones más desfavorables (temperatura de 15 °C y velocidad de viento de 120 km/h), incrementada en una distancia mínima de 8 metros a la base de los árboles para las líneas de segunda y tercera categoría y de 9 metros para las de primera categoría, y a ambos lados de la misma.

**Cuatro.**– En el caso de que se trate del paso por zonas de arbolado integradas en zonas ambientalmente sensibles, y siempre que se respeten las distancias establecidas en los puntos uno y dos de la presente Resolución, la zona de corte podrá reducirse en los términos que se establezca por parte de la Administración competente para cada caso concreto.

#### DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Las prescripciones establecidas en la presente Resolución serán exigibles en las inspecciones periódicas reglamentarias de todas las instalaciones existentes, estableciéndose un plazo de tres años para su efectivo cumplimiento a partir de la fecha de dicha inspección.

#### DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada la Resolución de 29 de enero de 2007, del Director de Energía y Minas, por la que se establecen prescripciones específicas para el paso de líneas eléctricas aéreas de alta tensión por zonas de arbolado.

#### DISPOSICIÓN FINAL

La presente Resolución entrará en vigor desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de marzo de 2011.

El Director de Energía y Minas,  
OSKAR ZABALA RABADÁN.